



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 44/1999 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako laguntza eta diru-laguntzen deialdia onetsi zuen martxoaren 29ko 42/94 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zaharren egoitzetan sartzeko banakako dirulaguntzen emakida araupetu zuen azaroaren 2ko 108/93 Foru Dekretua, gero abenduaren 2ko 116/97 Foru Dekretuaren bidez aldarazia, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako diru-laguntzen 1998rako deialdi publikoa onetsi zuen martxoaren 3ko 18/98 Foru Dekretua Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekonomi araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 ekonomi Foru Araura moldatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 120/1998 Foru Dekretua aldarazten duena.

ZIOEN AZALPENEA

Bizkaiko Foru Aldundiak, berez dituen eskumenen eremuan eta Gizartekintza Sailaren bitartez, banakako diru-laguntzen eta laguntzen emakida araupetu oni du foru dekretuen bidez.

Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 Foru ArauaK, 11. tituluko IV, kapituluko 1. atalean, laguntza eta diru-laguntza publikoak emakidatzeko beharkizunak araupetu zituen. Abenduaren 22ko 120/1998 Dekretuaren bidez, martxoaren 29ko 42/1994 Foru Dekretua, azaroaren 2ko 108/1993 Foru Dekretua eta martxoaren 3ko 18/1998 Foru Dekretua aipatu Foru Araura moldatu ondoren, bidezkoa da abenduaren 22ko 120/1998 Foru Dekretua aldaraztea. urriaren 14ko 10/1997 Foru Arauko 96. Artikulua betetzeKo, zeren, artikulua horretako h) atalean ezartzen denaren arabera. Dekretuen oinarri araupetzailereK zehaztu behar baitituzte bai kredituaren muga eta bai laguntzaren ordainketa tramitatzeKo iturri izango den aurrekontu-patidaren esleipena.

Hori dela bide eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru EraKundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1997 Foru Arauko 17. artikulua eta 64. artikuluko 3 atalaren bidez emandako anaimenak erabiliz, Gizartekintza Saileko foru diputatuak proposatu eta Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak 1999ko martxoaren 23ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe.

XEDATU DIT

Artikulu bakarra

Foru Dekretu honen bidez, Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako laguntza eta diru-laguntzen deialdia onetsi zuen martxoaren 29ko 42/94 Foru Dekretua, lehendik indargabetutako V, VI eta VII, eranskinak izan ezik, Bizkaiko Lurralde Historikoko zaharren egoitzetan sartzeko banakako diru-laguntzen emakida araupetu zuen azaroaren 2ko 108/93 Foru Dekretua, gero abenduaren 2ko 116/97 Foru Dekretuaren bidez aldarazia, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako diru-laguntzen 1998rako deialdi publikoa onetsi zuen martxoaren 3ko 18/98 Foru Dekretua Bizkaiko Lurralde Historikoaren Ekonomi Araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 Ekonomi Foru Araura moldatu zituen abenduaren 22ko 120/1998 Foru Dekretua aldarazten da, jarraian azaltzen den moduan idatzita geratuko den honako artikulua erantsiz:



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Gizartekintza Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Acción Social

Bizkaiko Foru Aldundiaren martxoaren 23ko 44/1999 FORU DEKRETUA, Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako laguntza eta diru-laguntzen deialdia onetsi zuen martxoaren 29ko 42/94 Foru Dekretua, Bizkaiko Lurralde Historikoko zaharren egoitzetan sartzeko banakako dirulaguntzen emakida araupetu zuen azaroaren 2ko 108/93 Foru Dekretua, gero abenduaren 2ko 116/97 Foru Dekretuaren bidez aldarazia, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren gizarte zerbitzuetako diru-laguntzen 1998rako deialdi publikoa onetsi zuen martxoaren 3ko 18/98 Foru Dekretua Bizkaiko Lurralde Historikoaren ekonomi araubideari buruzko urriaren 14ko 10/97 ekonomi Foru Araura moldatu zituen Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 120/1998 Foru Dekretua aldarazten duena.

«4. artikulua

Emakumeari laguntza emateko zentroetan sartzeko laguntzak eta gizarte larriuneetan dauden emakumeentzako banakako ekonomi laguntzak aurrekontu-partida honen pentzutan emango dira: ekonomikoa: 46100, egitaraua: 310302, organikoa: 0302; 110.000.000 pezetako aurrekontu-kredituaren muga eta 60.000.000 pezetakoa, hurrenez hurren, izango dituztela.

Zaharren egoitzetan sartzeko banakako ekonomi laguntzak aurrekontu-partida honen pentzutan emango dira: ekonomikoa: 46100, egitaraua: 320303, organikoa: 0303; 970.000.000 pezetako aurrekontu-kredituaren muga izango duela.

Laguntza berezia behar duten taldeei laguntza emateko zentroetan sartzeko banakako ekonomi laguntzak eta laguntza berezia behar dituen gizarte-taldeentzako banakako ekonomi laguntzak aurrekontu-partida honen pentzutan emango dira: ekonomikoa: 46100, egitaraua: 320301, organikoa: 0303; 29.000.000 pezetako aurrekontu-kredituaren muga eta 22.500.000 pezetakoa, hurrenez hurren, izango dituztela.

Gizarte-ekonomiazko arazoak dituzten adin-txikikoen familientzako banakako ekonomi laguntzak aurrekontu-partida honen pentzutan emango dira: ekonomikoa: 46100, egitaraua: 310302, organikoa: 0302; 45.000.000 pezetako aurrekontu-kredituaren muga izango duela.»

Xedapen bakarra

Foru Dekretu hau «Bizkaiko Aldizkaroi Ofizial», ean osorik orgitara dadin egunaren biharamonean jariko da indarrean.

Bilbon emana, 1999.eko martxoaren 23an.

Gizartekintza Saileko Foru Diputatua,
INMACULADA LOROÑO ORMAECHEA

Ahaldun Nagusia,
JOSU BERGARA ETXEBARRIA